

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Itsasoak garbitzeko aparatua sortzerako orduan oso garrantzitsua izango da bazkide eta hornitzaileak bilatzea. Izan ere, tresna hau eraiki ahal izateko, laguntza ekonomiko handia beharko genuke. Ideala izango litzateke, gobernuetako fondoetatik eskuratu ahal izatea. Bestalde, pertsona dirudunek, enpresen buru direnek eta imberstioetaz bizi direnek ere esku hartzea oso lagungarria izango litzateke gure proiektua gauzatzeko.



Laguntza ekonomikoa jasotzea, beharrezkoa da proiektua gauzatzeko, ezinezkoa baita gure kapitalarekin aparatua eraikitzea. Hornitzaileak ez digute soilik laguntza ekonomikoa eskaintzen, izan ere, gehienetan jende jakintsua izaten da enpresaren alorrean. Horrek asko lagun diezakegu proiektua aurrera ateratzeko orduan. Laburbilduz, bazkide eta hornitzailerik gabe, argi dago ezingo genuela ezer egin eta ez da soilik laguntza ekonomikoagatik.